



**2018**

**TXOSTENA  
MEMORIA  
MEMOIRE**

---

**100**



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

[www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus)

---

**EUSKO IKASKUNTZA**

Memoria 2018 / Eusko Ikaskuntza. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2019. – 132 or. ; ir. ; 24 cm.

ISSN: 0213-8662

1. Eusko Ikaskuntza I. Tit.

06 Eusko Ikaskuntza

---

Erakunde hauen babesarekin : Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateak Ministeritza.



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

**EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES**

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia

[www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus) e-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus)

Lege Gordailua: SS – 0512/04

Fotokonposaketa: Belén Moreno

Inprimaketa: Fasprint (Donostia)

# Aurkibidea

# Índice

# Index

05	47	89
Aurkezpena	Presentación	Présentation
06	48	90
Sarrera	Introducción	Introduction
08	50	92
Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifika	Actividad científica de Eusko Ikaskuntza	L'activité scientifique d'Eusko Ikaskuntza
16	58	100
Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua	XVIII Congreso de Estudios Vascos	XVIIIe Congrès d'Études Basques
24	66	108
Mendeurrena	Centenario	Centenaire
32	74	116
Beste proiektu eta ekimen batzuk	Otros proyectos e iniciativas	Autres projets et initiatives
36	78	120
Sariak	Premios	Prix
38	80	122
Zabalkundea	Difusión	Diffusion
40	82	124
Erakundea	La Institución	L'Institution
44	86	128
Datu ekonomikoak	Datos económicos	Données économiques

| 2018 TXOSTENA





Eusko Ikaskuntzaren historian urte gogoangarria izan denaren errepasoa egingo dugu datozen orriotan. Gogoangarria benetan, Eusko Ikaskuntzak lehenengo mendeurrenena bete duelako, eta gure erakundeak **topagune eta ariketa intelektual partekatua** egiteko gunetzat duen balioa eta indarra erakutsiz oroitu dugulako.

2018an zehar, Eusko Ikaskuntzaren izena ahoz aho ibili da Euskal Herrian. Gero eta jende gehiago bildu zaigu erakundea eta euskal gizarte zibilaren ekinbiderik zaharrenetako batean parte hartzen. Izan ere, gure erakundeak ehun urte eman ditu lanean ezagutza sortzen; arrazoi bidez errealitatea ulertzen; egungo eta etorkizuneko erronkei erantzun eraginkor bat ematen; eta euskal komunitatea mundu zabalean identifikatzen duten ikur eta balioetan sakontzen.

2013an, bide berria abiaraztea erabaki genuen, Eusko Ikaskuntzaren misioa berriz formulatu eta eguneratzeko asmoz; eta 2018an, aurrerako norabidea erakusten digun mugari bikaina finkatzea lortu dugu. Ospakizunak amaituta, egunez egun, hilez hil, denon artean, lanean jarraitzea dagokigu, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan jardun duten taldeek imaginario kolektiboan proiektutatu duten etorkizuna eraikitzen joateko, Liburu Zuriaren oinarrietan jaso direnak hain zuzen ere.

Horregatik, ireki dugun ziklo berriaren aurrean, hitz egiteko, entzuteko eta hausnartzeko gaitasun osoa mahai gainean jartzera animatzen zaituztet akademiako, empresako edo erakundeetako kideak, eta gure Herriko eta gure garaiko errealitatearekin konprometitutako pertsonak guztiak. Horrela, elkarlanean baino ez dugu lortuko gizartearen eraldaketa sortzailea eta, azken buruan, Euskal Herriaren garapen integrala, bultzatzea.

**Iñaki Dorronsoro  
Lehendakaria**

# SARRERA

---



Eusko Ikaskuntza 1918an jaio zen, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foru-aldundien ekimenez. Mundu osoko euskal herritar eta euskaltzale guztiei dago irekita eta gizarte-oinarri zabal-zabala du. Izan ere, euskal eremu osoan ofizialki aitortuta dagoen eta Administrazio guztierek harreman zuzena duen erakunde zientifiko-kulturala da. Orobata, sinesmen eta ideologia guztieta koezin pertsonak erakartzeko gaitasuna frogatu du, Euskal Herriarekiko maitasunaren eta kultur balio jakin batzuei eutsi egin behar zaielako ustearen inguruan bilduta.

## Zer egiten dugu?

Eusko Ikaskuntzak ezagutza aztertzea eta sustatzea du helburu. Duela mende batetik hona, Euskal Herrian sortutako kezka eta etorkizunerako erronka nagusiei irtenbide berritzaleak ematen saiatu da uneoro. Ildo horretan, gizartea, kultura, hizkuntza, egoera sozioekonomikoa eta lurralte-errealitatea hartzen ditu beti kontuan. Alderdi horiei guztiei heltzeko ikuspegia, gainera, zientifikoa, lankidetzakoa, diciplina anitzekoa, plurala eta independentea izan ohi da beti.

## Helburua

- Eusko Ikaskuntzak euskal gizartea kohesionatzen eta egituratzentz lagundi nahi du. Horretarako, Euskal Herriaren ikuspegia globala eta integratzalea eskaintzen du, lurralde bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta.
- Euskal Herria berritzen eta eraldatzen laguntzen du, arazo eta erronkak aztertzetaz eta erantzunak eskainiz.
- Pentsaera irekia, plurala eta independentea garatzen eta gizarteratzen ahalegintzen da.
- Zientzia eta kultura zabaltzen ditu.
- Horrela, gizarte-ehunaren artikulazioa sustatzen du eta zubiak eta sinergiak sortzen ditu erakundeen, lurraldeen, pertsonen eta ikuspegieng artean.



## Eremu tematikoak

2013an, Eusko Ikaskuntzak bere egiteko historikoa birkinkatu zuen, **Etorkizuna irudikatuz** lemapean uztarturik, bere jarduera zientifikoa lau ardatz estrategikotan bultzatuta:

- **Euskararen etorkizuna**
- **Errealitate sozio-kulturala**
- **Eredu sozio-ekonomikoa**
- **Egitura sozio-politikoa**

Lau ardatz estrategiko horietatik abiatuta, gure instituzioak bost ikerketa-proiektu handi zehaztu zituen:

- Nahi dugun gizarte, izango dugun gizarte
- Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen, e5
- Gure jendea: gizarte eta kultura
- Garapen sozio-ekonomikoa: euskal gizarte eta enpresa
- Gobernantza demokratikoa

2018an zehar, bost arlo horien inguruan lan saio ugari jorratu ditugu. Eta, hauen bitarbez, udazkeneko Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua –Erakundearen mendeurrenaren ospakizunarekin bat egin duena–, edukiz mamitzen lagundu dute.



# EUSKO IKASKUNTZAREN JARDUERA ZIENTIFIKOA

---

“Eusko Ikaskuntzak XXI. mendeko Euskal Herriko gizarte iraunkorren” alde lan egiten du. Helburu horrekin, **bost ikerkuntza-proiektu nagusitan** egituratzen du bere jarduera zientifikoa, bere jardunbidearen oinarri diren bi ardatz nagusiei, gizarteari eta lurraldeari, erantzun globalak emateko.

Eusko Ikaskuntzaren ikuspegi berezi horrek, beraz, bi ardatz horiek zeharkatzen dituzten aldagai kritikoak hartu behar ditu barne: aldagai sozioekonomikoa, kulturala eta soziopolitikoa, hain zuzen. Horiek guztiak uztartzen saiatzea da erakundearren eginkizuna.

Euskal Herriaren eta haren kulturaren kezkak, interesak eta erronka sozialak abiapuntu hartuta, gizarte zibila –gure adimen kolektiboa– aktibatzen du etorkizun posible eta desiragarriak bistaratzeko.

Ezagutzak eta hainbat gizarte-eragileren partaidetza zabalak bat egiten dute, irtenbideak aztertzeko, proposamen ausartak lantzeko eta interes kolektiboko ekimenak sustatzeko, ikuspegi eta planteamendu ezberdinatik, egungo euskal komunitate globalaren etorkizuneko jarduketa iraunkorren gidalerroak eta zimentua finkatzeko.

## Metodologia

Eusko Ikaskuntzak egungo gizartean dauden espazio aktiboak elkarrekin lotu nahi ditu, **adimen kolektiboa bultzatzeko eta errealitatean eragiteko helburuz**. Eta zeregin horretarako gakoa hiru ardatz hauek oinarri dituen metodologia da:

- **Elkarlaneko metodologia**, progresiboa, prozesu ireki eta integratzaileen bidez, ekarpenak batuz, konfiantza sareak sortzeko.
- **Ikuspegi plurala**, diziplinartekotasunean oinarritutako dinamika, hurbilpen teoriko eta ideologiko ezberdinak, adituengen ezagutza eta jarduera, lurraldetako bakoitzaren berezitasuna eta belaunaldien arteko begirada bateratzeko asmoz.
- **Adituen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzan estua eta iraunkorra**, unibertsitate, erakunde, alderdi politiko, gizarte-eragile eta herritarren arteko lankidetzako lana sustatuz.

Prozesuaren esparru metodologikoa Liburu Berdean (fase kontzeptuala, diagnostikoarena) eta Liburu Zurian –eszenarioak, agendak eta proposamenak– jasota dago. Metolodogia horrek akordio estrategikoa lotzeko eztabaida eta erabaki-prozesuak ezartzen laguntzen du, erakunde nahiz partikularren partaidetza bilduta.

Liburu Berdean jasotako fase kontzeptuala eta diagnostikofasea lantzeko erabili genuen 2016-2017 aldia, eta 2017an, lan-arlo bakoitzaren egoeraren irakurketa egin ondoren, planteatutako ardatzak mapa kontzeptual batean jaso ziren. Hortik abiatuta lortu genuen “ikuspegi desberdinhetatik egindako” erradiografia, Euskal Herriko lurraldeen kohesioari eta elkartasunari buruz.

Liburu Berdean oinarri hartuta, beraz, lan-programak abian jarri ziren: Herriarren Mahaiak, Gizarte Foroak eta Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua. Batzar handi horretan aurkeztu ziren etorkizuneko agenda sozial eta instituzionalen oinarritzat erabiliko ziren eszenarioak eta arkitekturak laburtzen zituzten Liburu Zuriaren Oinarriak.

Lan horrek guztiak oinarrizko bi printzipio hauek jarraitu ditu: lehenik, **duintasun demokratikoa eta gogoeta**-prozesuan parte hartzeko jakintza eskuratzeko parekidentasuna; bigarrenik, **zeharkakotasuna eta genero-ikuspegia**, desparekotasun-egoerak antzeman eta gainditzeko.

Lan prozesua:

Liburu Berdea

Liburu Zuria

**Metodología**

Liburu Berdeak Liburu Zurira, herritaren, erakundeen, eragileen eta adituen ekarpenen bidez kongresura iristeko bidea

Diagnosi  
partekatutik

Dagoena  
balioan jarri  
Aktiboak  
identifikatu

Eszenatoki  
aukerak aztertu

Arkitektura  
propositibora

**Helburua: Euskal Herriaren gizarte eta lurraldaren kohesioa eta elkarlketza**

**Liburu Berdetik Liburu Zurira**

2016. urtean abian jarritako Geroa Elkar-Ekin prozesuan bildutako diagnostikoa eta gakoak Liburu Berdean jaso ziren. Mapa kontzeptual eta diagnostiko hori aberastu egin zen gerora, 2018ko lehen erdian egindako Gizarte Foroetan eta Herritarren Mahaietan azaldu ziren kezkak, zalantzak eta gogoetak gehituta.

Egungo egoeraren azterketa horretatik abiatuta, Euskal Herriaren gizarte eta lurralde kohesioa indartuko zuten etorkizuneko eszenarioak eta proposamenak zirriborratu ziren, bost bektoretan oinarrituta: XXI. mendeko

gizartearren jasangarritasuna; errealtitate sozio-kulturala; eredu sozio-ekonomikoak, euskararen etorkizuna eta egituratzeko sozio-politikoa.

Adituen, eragile sozial eta politikoen eta herritarren ekarpenak bilduta, lan hori guztia Liburu Zuria delakoan jaso zen, urrian eta azaroan egindako Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren esparruan oinarriak zehaztu eta gero.



## Herritarren Mahaiak

Proiektu bakoitzean partaidetzen oinarritutako metodologia dinamikoa erabiliz gizartearen ahotsa gehitu zen, etorkizunean landu beharreko ildoak irudikatzeko balio izango zuen topagune batean nahiak, beharrizanak eta galderak zehazteko asmoz.

### - Euskal Herriko etorkizun sozio-ekonomikoa Bilbo, 2018-03-17

Esparru sozio-ekonomikoari buruzko saio horretan, orotariko adin, genero eta jatorriko herritarrok bildu ziren, egungo gizartearen kezkei erantzungs zieten hiru gai zabalen inguruan hausnartzeko: ongizate-eredu propioa; lurralte-estategiak eta iraunkortasuna; eta, azkenik; enpresa-eredua eta lan-harremanen eredu. Herritarren zalantzak eta nahiak, gaien inguruan zeukanen ikuspegia eta horien inguruko erronka eta proposamen nagusiak biltzea izan zen lan-dinamikaren helburua.

### - Gure jendea: gizartea eta kultura Iruñea, 2018-04-14

Liburu Berdean jasotako diagnostiko hau izan zen abiapuntua: “globalizazioak eta egungo gizarte konplexuak elkarrekiko konfiantza ahuldu egiten dute eta, beraz, ezinbestekoa da aniztasunean eta bizikidetzan oinarritutako kohesio-bideak sendotzea; herri-proiektua eraikitzeakotan, garrantzitsua da herritartasunaz eta balio partekatuez hitz egitea”. Premisa horiek hartuta, Herritarren Mahaiak lau gai jorratu zituen: aniztasuna; kohesio-bideak; euskal hedabideen sistema; ingurune digitala.

### - Gobernantza demokratikoa, euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetza ardatz hartuta Donostia, 2018-04-18

Demokrazian eta Euskal Herriko lurraldeen kohesioan eta elkarkidetzen sakontzeko aukera eman zuten gaiak jorratu ziren Gobernantzari buruzko Herritarren Mahaian: euskal lurraldeen erabaki-ahalmena; esparru politiko zabalagoekiko harremanak –mundua, Europa, estatuak–; erabakitzeko kultura demokratiko berriak; lurralde-ardatzak eta sinergiak.

## Etorkizuneko Foroa

### **Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea**

- **Bizitza luzearen erronkak eta aukerak**  
Irun, 2018-03-26

Eusko Ikaskuntzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erronka demografikoaren inguruan jorratutako proiektuaren esparruan, foro horrek zahartzeari buruzko gogoeta sakona eta eraikitzailea bultzatu zuen. Ane Bustinduyk zuzenduta, saioak bi ardatz izan zituen. Bata, arlo pertsonalari buruzkoa: bizialdia birpentsatzen; ikasketa adin nagusietan; bizialdi guztietan zehar ikasten (LLL – Life Long Learning); elkartasun- eta elkarkidetza-sareak... Eta bestea, alor kolektiboari buruzkoa: eskarmentuaren eta ezagutzaren ustiapena.



## Gizarte Foroak

### **e5: Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzenean**

- **Etorkizuneko eszenarioak**  
Gasteiz, 2018-02-23

Bigarren mintegian bildutako partaideak –euskalgintzako eragileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak eta ikasleak...– euskararen etorkizuneko eszenarioak irudikatu zuten sorkuntza ariketa baten bidez. Mintegiak 2040. urtean jartzen zuen fokua eta ariketa horretarako abiapuntuak, 2017an landutako “Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa”. Sorkuntza taile honen komunitate-kapital bakoitzeko eszenario konstelazio desberdinak eskaini zituen, emaitzak Etorkizunerako irudikatutako komunitatearen kapitalen eszenarioen konstelazioa 2040ko jomugan irudikatutako aktibo nagusien mapan bildu ziren.

- **Arkitektura estrategikoa**  
Gasteiz, 2018-06-08

“Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa” eta “Komunitatearen Kapitalen Eszenarioen Konstelazioa, 2040ko jomugan irudikatutako aktibo nagusien mapa” oinarri hartuta, irudikatutako konstelazioa erdiesteko Arkitektura Estrategikoa diseinatzeko helburua finkatu zen. Horretarako, lau galdera egin ziren ekintza edo ekimen zehatzei buruz, izan lezaketen inpaktuari buruz, beharrezko eskumenei buruz eta aktiboen arteko iragankortasunari buruz. Hausnarketa horren emaitzak “2040 urterako irudikatutako kapitalen (Aktiboen) Konstelazioak eraikitzeko ekinbide gakoen mapan” jaso ziren.

## ***Garapen sozio-ekonomikoa: gizartea eta euskal enpresa***

### **- Gizarte-ongizateko eredu propio baterantz Bilbo, 2018-05-08**

Gizarte-ongizatearen alorrean lan egiten duten gizarte-eragileak, ordezkari politiko eta akademikoak eta gizarte zibil antolatuko kideak bildu zituen Eusko Ikaskuntzak. Aurkezpena egin ostean, partaideek Liburu Berdean jasotako erronken eta gaien inguruan hitz egin zuten, eta bertan identifikatutako funtsezko lau gaiei erantzuten ahalegindu ziren: belaunaldi-arteko hitzarmen baten premia; enplegua, gizarteratzeko bidea; zaintzen krisia; eta, azkenik, lurralte-egiturak eta eskumen-mailak.

### **- Lurralte-estategiak eta jasangarritasuna Bilbo, 2018-05-17**

Foroaren lehen zatian, landa- eta hiri-esparruko eskualde eta bailara industrialen garapenari buruzko eta ekonomia zirkularrak lurralderako duen balioari buruzko esperientziak eta ikuspegiak azaldu ziren. Ondoren, lau gairen inguruan lan-mahaiak osatu ziren: nola garatu lurralte-estategia inklusiboak; nola txertatu halakoetan jasangarritasunaren paradigma; nola sustatu lurralte-barneko lankidetza; eta nola bultzatu elkarlaneko eta partekatutako gobernantza-ereduak.

### **- Enpresa-ereduak eta lan-harremanak Bilbo, 2018-06-07**

Hiru aditu arduratu ziren gizarte-foro honen edukiak aurkezteaz. Lehenengik, egungo testuinguru sozio-ekonomikoa eta enpleguaren eta lanaren munduan bizi diren eraldaketak aztertu ziren, ikuspegi prospektiboz. Eta, beste alde batetik, enpresarako eta lan-harremanetarako eredu berri inklusiboagoak eta elkarlanekoagoak jorratzeko planteamendu eta proposamenak landu ziren. Aurreko foroetan bezala, partaideak lan-mahaietan batu ziren, eszenario eta proposamenen bidez, txostenetan eta Herritarren Mahaietan agertu diren erronketarako erantzunak bilatzen ahalegintzeko.



**Gure jendea:  
gizartea eta kultura**

**- Gure jendea: anitzasuna eta kohesio-bideak**  
Iruñea, 2018-05-28

Hiru bloke nagusi landu ziren Gizarte Foro honetan: Herritarren mahaietan agertu ziren galderei erantzuteko; Lurraldea(k) eta identitatea(k): anitzasunaren kudeaketa, identitate pluralak, gizarte-kohesioa eta lurraldetako kohesioa; hezkuntza; eta kohesiorako bidea (gizarte-konfiantza); lurralde, herri eta herritarren arteko barne- lotura berriak. Gizarte- eta kultura-eragileak, politikariak eta anitzasunaren kudeaketan eskarmentua duten pertsonak bildu ziren, guztien ikuspigiak partekatu eta gutxienekeko lurzoru komuna bilatzeko. Ildo horretan, proiektu partekatu posibleak zirriborratu zituzten.

**- Hedabideak eta kohesioa**  
Iruñea, 2018-06-13

Hedabideak, gizartea ordezkatzen dute, ala eraiki egiten dute? badago Euskal Herriko lurralteko guztiak biltzen dituen eremu komunikatiborik? eta iritzi publiko integraturik? Hala bada, badago agenda bakar bat edo desberdinak, hizkuntzaren arabera? Horiek izan ziren hedabideei eta kohesioari buruzko aztertu zituzten galderetako batzuk. Anitzasunaren irizpidea erabiliz, hiru mahaitan bildu ziren: hedabideak, herri eta gizarte-eraikitzaleak; komunikatzeko erak eta eremu komunikatiboa; hizkuntza eta komunikazioa.

**Euskal Herriko lurraldeen  
gobernantza demokratikoa**

**- Gobernantza demokratikoa**  
Donostia, 2018-05-24

Gizarte foro horren helburua hauxe izan zen: bertan bildutako orotariko alor eta lurralteetako gizarte- eragileek euskal lurralteetako demokraziaren, kohesioaren eta bizikidetzaren alorrean herritarrek egindako galderrei erantzutea eta horren inguruko proposamenak sortzea. Lau gai jorratu ziren: Euskal lurralteak globalizazioaren aroan; Euskal lurraldeen, Europaren eta estatuen kanpoko egituratzea; Euskal lurraldeen demokratizazioa; Gure balioak eta euskal lurraldeen kohesioa.





# EUSKO IKASKUNTZAREN XVIII. KONGRESUA



## Aurkezpena

2018ko urriaren 5etik azaroaren 23ra bitartean egin zen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua, **Geroa Elkar-Ekin / El futuro que nos (re)une / Notre futur ensemble** lemapean, Baionan, Gasteizen, Iruñean, Bilbon, Donostian eta Oñatin. Hausnarketarako eduki trinko eta zabala eraman ziren bertara, profesionalen, adituen, gizarte-eragileen, politikari eta ekonomialarien, herri erakundeen eta gizarte zibilaren partaidetza bildu zuen urte askotako lan-programari esker.

Bost esparruetako bakoitzean prestatutako diagnostiko eta proposamenak aztertu eta aberastu ziren Kongresuan. Lehenengo helburua Euskal Herriak aurrean dituen kezka eta erronkei erantzuteko eszenarioak agertzea izan zen; eta gero, ikertu eta jorratu ziren gaietan sakontzen jarraitzeko konpromiso sozio-instituzionala lortzea. Amaiera-ekitaldian aurkeztutako Liburu Zuriaren Oinarrietan jaso ziren eduki nagusiak.

1918ko lehenengo Kongresuan abiarazitako ildo historikoarekin bat, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuak euskal komunitateen garapen orokorrerako ekarpen positibo eta aurreratua eskaini nahi izan zuen, horixe izan baitzen orain dela mende bat Eusko Ikaskuntza eratzeko arrazoia.

## GEROA ELKAR-EKIN / EL FUTURO QUE NOS (RE)UNE / NOTRE FUTUR ENSEMBLE



- **Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea**  
Baiona (Udal Antzokia eta Maison des Associations).  
2018-10-05
- **Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen (e5)**  
Gasteiz (Vital-Salburua eraikina). 2018-10-19
- **Gizartea: aniztasuna eta kohesioa**  
Iruñea (Civican). 2018-10-29
- **Garapen sozio-ekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa**  
Bilbo (Iberdrola dorrea). 2019-11-09
- **Gobernantza demokratikoa**  
Donostia (Tabakalera). 2018-11-16
- **Itxiera-Saioa**  
Oñati (San Migel eliza). 2018-11-23

### ***Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea***

Baiona, 2018-10-05

Yves Ugalde Baionako Udaleko kultura-zinegotziak, Iñaki Dorronsoro Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta Eguzki Urteaga Ipar Euskal Herriko ordezkaritzaren lehendakariordeak inauguratu zituzten, urriaren Sean, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren saioak.

“Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea” izenburupean egindako Kongresuaren lehen saioan, Osasun eta Gizarte Erakundeei buruzko Prestakuntza eta Ikerketa Institutuko (IFROSS) sortzaile Jean-Pierre Claverannek hitz egin zuen. “Lurraldea globalizazioaren eta munduanaren mutazioen aurrean” izeneko hitzaldian, Claverannek defendatu zuen lurraldea gaur egungo erronkei aurre egiteko eta etorkizuneko belaunaldiekin batera mundu solidario baterantz jotzeko leku aproposa dela.

Arratsaldean, Javier Castro Spilak eta Koro Muro Arrietek **Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea**, proiektuaren ondorioak aurkeztu zituzten. Jean-Michel Larrasqueteak zuzendu zuen proiektua, hil zen arte. Joerak deskribatu, eszenarioak irudikatu eta proposamenak egin ziren, hiru dinamika estrategikoren inguruan: biztanleria, lurraldea eta ezagutza. Horiek izan ziren, hain zuzen ere, Euskal Herri osoan zehar eta ia hiru urtean egin diren partaidetzako foroetan landutako gaien ardatz nagusiak.

Azkenik, mahai-inguru batean bildu ziren Juliette Bergougnan, Baionako IUTko marketin-irakaslea eta migratzailaek hartzen dituen CIMADE erakundeko boluntarioa; Michel Berhokoirigoin, Euskal Herriko Laborantza Ganberako sortzailekidea eta lehen lehendakaria, ELB nekazari-sindikatuko militantea eta Nekazarien Konfederazioaren sortzailekidea; Ane Bustinduy, LKSko kontsultorea eta Eusko Ikaskuntzak zahartze demografikoaz landu duen proiektuaren zuzendaria; eta Javier Echeverria Ezponda, matematikaria, filosofoa, saiakera-egilea eta Ikerbasqueko ikertzailea. Guztiak ere zahartzeak, ezagutzak eta lurraldetasunak dakartzaten erronkez jardun zuten, moderatzaile lanetan Industria Teknologia Aurreratuen Goi Eskolako (ESTIA) irakasle Iban Lizarralde zutela. Lizarraldek eskarmentu zabala du stakeholderrekin mugaz gaindiko proiektu konplexuak kudeatzen eta teknika berritzailaik lantzen.



## e5: Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen

Gasteiz, 2018-10-19

Arabako Diputatu Nagusi Ramiro Gonzálezek eta Gasteizko alkate Gorka Urtaranek ireki zuten Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren bigarren saioa, Eusko Ikaskuntzako Arabako ordezkaritzaren lehendakariorde Anjeles Iztuetarekin batera. Jardunaldian, Eusko Ikaskuntzak 2016an abian jarri zuen “e5 Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen” proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten. Metodologia berritzalea erabiliz, hizkuntzari berari erreparatu beharrean, datozen hamarkadetan euskaraz bizi, garatu eta mundura ireki nahi duen komunitatea jartzen du proiektuak erdigunean.

Mikel Irizar Intxaustiren eta J. Inazio Marko Juanikorenaren mintzaldien ondoren (“Euskalgintzaren testuingurua: irakurketa soziopolitikoa” eta “e5 proiektuaren aurkezpena”, hurrenez hurren), euskaraz garatu nahi duen komunitateak dituen edo eduki beharko lituzkeen aktiboen inguruko ekimenak eta proposamenak landu zituzten zenbait adituk. Halaber, kongresu saioan gazteen begirada kontua izan zen eta irakurketa positibo eta zorrotz batetik, euren proposamenak aurkeztu zizkgutenean.

Arratsaldeko saioan, Amhersteko University of Massachusettsko irakasleak “Hitzunean ardaztutako hizkuntza-plangintza helburu” izeneko hitzaldia eman zuen.

Azkenik, ordura arte lan-ildo horretan egindako lana jasotzen duen “e5 Adierazpena” aurkeztu zen, labur jasota 2040. urterako eszenarioak lortzeko proposatutako ekimenen edukia. Kongresuko saio horretan ehun lagunek baino gehiagok sinatu zuten e5 Adierazpena, Liburu Zuriaren Oinarritan jasota dagoena, euskaraz bizi, garatu eta mundura ireki nahi duen komunitate baten hitzarmen sozial eta politiko sendo baten abiapuntua izan dadin.



### Gizarte: aniztasuna eta kohesioa

Iruñea, 2018-10-26

Kongresuaren hirugarren saioan, Eusko Ikaskuntzak 2016an abian jarri zuen “Gure jendea: aniztasuna eta kohesio-bideak” programaren emaitzak aurkeztu zituzten.

Iruñeko alkate Joseba Asironen, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako sailburu Ana Ollo Hualderen eta Eusko Ikaskuntzako lehendakari Iñaki Dorronsortoren ongi etorriaren ondoren, zenbait aditu arduratu ziren ondorengo eztabaidea gogoetekin elikatzeaz. Besteak beste, gizarte eta lurralteko-kohesioaz aritu ziren Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle Salvador Cardús eta Nafarroako Unibertsitateko David Thunder. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Txoli Mateosek, bere aldetik, bizikidetzaren kontzeptuari, haren kudeaketari eta hezkuntza-bidezko transmisioari erreparatu zion.

Bigarren zatian, Kongresuak hedabideak aztertu zituen euskal lurraldeko kohesiorako faktore gisa. Ramon Zallo soziologoak, Mirentxu Purroy kazetariak eta Arigitxu Camus doktoreak lehen esparru teorikoa eskaini zuten.

Jardunaldiari amaiera emateko, “Komunikazioz ere egiten da Euskal Herria?” izeneko mahai-ingurua egin zen, Arigitxu Camus, Andoni Aranburu (EITB), Ana Oregi (Eusko Legebiltzarra) eta Txema Mauleon (Nafarroako Gobernua) kideak bilduta.





### **Garapen sozio-ekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa**

Bilbo, 2018-11-09

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte-inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko Saileko foru diputatu Teresa Laespak, Bilboko alkate Juan Mari Aburto eta Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko ordezkaritzaren lehendakariorde Rosa Miren Pagolak aurkeztu zuten laugarren saioa, lau gai jorratzeko balio izan zuena: ongizate-eredu propioa; lurralte-estategiak eta iraunkortasuna; eta, azkenik, enpresa-eredua eta lan-harremanen eredua.

Hasierako hitzaldia Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Miguel Laparrak eman zuen, eta XXI. mendeko ongizate-estatua gaia lantzeko erabili zuen.

Honako hauek nabarmendu zituen Kongresuak, bestek beste: ongizate-estatuaren eta produkzio-eredu sendoaren arteko mendekotasuna; kalitateko enpleguak

eta aberastasuna banatzeko bideek gizarte-inklusioan duen garrantzia; gizarte-babeserako eredu zabal, eraginkor eta jasangarri batzen premia; eta belaunaldi-arteko elkartasunaren balioa. Herrialde erresiliente eta jasangarria egituratzeko, lurraldeen arteko lankidetzak eta osagarritasunak duen garrantzia ere nabarmendu zen, eta gai horren barruan landa eta hiri-eremuen arteko lotura azalarazi zuten partaideek.

Gure garaiko erronken aurrean, Kongresuak nabarmendu zuen Euskal Herriak tamaina eta garrantzi kualitatibo handiegirik ez duen arren, gizarte-balioetan eta ekintzaileta-kulturan oinarritutako erantzuna emateko adibide egokia izan daitekeela.



### Gobernantza demokratikoa

Donostia, 2018-11-16

Kongresuaren laugarren saioa Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olano, Donostiako Udaleko Euskara-alorreko zinegotzi Miren Azkarate eta Eusko Ikaskuntzaren lehendakaria den Iñaki Dorronsortoren aurkezpen-hitzekin hasi zen. Ondoren, Europa integratzeko prozesuan eskualdeek betetzen duten eginkizuna eta eskualdeak aitortzeko politika proaktiboagoak garatzeko aukera, kosmopolita bihurtutako lurraldeen gobernantza eta erabakitzeko eskubidea landu zituzten Kongresuan.

Saioaren bigarren zatian, demokratizazio-prozesuak eta lurralte-kohesioa, subiranotasunaren printzipio demokratikoak eta lurralte-barneko lankidetzarako ereduak landu zituzten, besteak beste. Hiru alderdi

nagusik hartu zuten eztabaidaren denbora gehiena: euskal lurraldeek munduarekin; Europarekin eta estatuekin (Estatu espainolarekin eta frantziarrarekin) duten harremana; demokratizazioa; eta euskal lurraldeen arteko kohesioa.

Ondorioetan, Kongresuak demokratizazioan oinarritutako gobernantza-eredu berri baten aldeko apustua egin zuen, borondate partekatuak bideratu eta gatazkak era eraikitzailean kudeatzeko. Azkenik, agerian gelditu zen Eusko Ikaskuntza zela hausnarketa horiek eragileen, herritarren, adituen eta herri-erakundeen artean ehuntzeko biderik egokiena.

## **Itxiera-saioa**

Oñati, 2018-11-23

Itxiera-saioan, Eusko Ikaskuntzak XXI. mendeko Euskal Herrirako eskaintzen zituen proposamenak jasotzen dituen Liburu Zuriaren Oinarriak aurkeztu ziren.

Mintzaldiak lau bloketan bildu ziren: “Mundua: joera globaletatik tokian tokiko agertokietara gaia” Ibon Zugastik aurkeztu zuen. Jarraian, “Jendartea: nortasun anitza” eremuari dagozkion emaitzak eta proposamenak Julen Zabalok, Josu Amezagak eta Mikel Irizarrek landu zituzten. “Ongizate-eredua: bizitza zaindu, aberastasuna sortu eta banatu” blokean Joseba Zalakain, Ane Bustinduy eta Tomas Arrieta izan ziren hizlariak. Azkenik, laugarren atalaren gaia “Gobernantza: demokratizazioa ardatz” izan zen, eta Amalur Alvarez, Irune Lasa eta Antton Maya arduratu ziren azken ondorioak azaltzeaz.

Xabier Alkortak, antolaketa-batzordeko lehendakariak, Eusko Ikaskuntzak dagokion esparrua berreskuratu duela azpimarratu zuen; hau da, Herriaren zerbitzuan dagoen topagunea eta ezagutza sortzeko gunea. Ideia hori azpimarratu zuen Iñaki Dorronsorok, Kongresua itxi zuenean: **“Eusko Ikaskuntza hementxe dago: 1918an bezain baliagarria eta garrantzitsua sorburu duen gizartearentzat. Indarberrituta eta Asmoz eta Jakitez lemak laburtzen duen izpirituari eutsiz”**.



# MENDEURRENA

## Eusko Ikaskuntza, 1918-2018

2018an, Eusko Ikaskuntzak lehen mendeurrenena bete du. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foru-aldundiek bultzatuta, haren sorrera, 1918ko abenduan, euskal kultura-modernitatearen hasiera izan zen. Nortasun kolektiboan sakondu nahi zuten eragileak biltzea lortu zuen erakundeak, indarrak batuz eta proposamen berritzaile eta eraginkorren bidez, zientziaren eta kulturaren garapena, gizarte-kohesioa eta Euskal Herriko erkidegoen lurralte-egituraketa bultzatzeko.

Oinarri zabaleko elkartea osatu zuten hasierako kide haienak: bikaintasun goreneko pertsonak, ikertzaileak eta euskalariak ziren, baita ikasleak, pentsalari nekaezinak eta herrizaleak ere. Guztiak bat egin zuten Euskal Herriaren aurrerabidearekiko konpromisoan. Era berean, emakumeak euskal kulturaren eta zientziaren eremuetara ekartzeagatik nabarmendu zen Eusko Ikaskuntza.

Mende bat igarota, sorrerako misioa gizarte global, teknologiko eta konplexu baten testuinguruaren bideratu eta eguneratzen dihardu Eusko Ikaskuntzak. Partekatutako ezagutzaren balioa abiapuntu dela, jakintzak eta esperientziak lotzen ditu, eta adituen, herri-erakundeen eta gizarte zibilaren arteko elkarritzeta sustatzen du, guztiak batera etorkizuna eraikitzeko lanari ekiteko.





### ***Instituzio sortzaileen adierazpena***

Bilbo, 2018-03-14

Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenaren ekitaldia Bizkaiko Foru Aldundiaren jauregian egin zen, eta hasiera gisa, Eusko Ikaskuntzarekiko konpromisoa berritu zuten gure erakundea sortu zuten lau instituzioetako ordezkarien Adierazpen Instituzional bateratu baten bidez Unai Relementeriak, Bizkaiko ahaldun nagusiak; Ramiro Gonzálezek, Arabako ahaldun nagusiak; Markel Olanok, Gipuzkoako ahaldun nagusiak; eta Ana Ollok, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariaiak.

### ***Omenaldia lehendakariei eta sortzaileei***

Oñati, 2018-06-02

Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzaren lehenengo Kongresua 1918an, eta bertan ere gauzatu egin zen Eusko Ikaskuntza birsortzeko ekitaldia, berrogei urtean debekatuta egon ondoren, eta herri horrexek jaso zuen, halaber, Eusko Ikaskuntzaren zazpi lehendakariei eta 1978ko birsortzean parte hartu zutenei egindako omenaldi-ekitaldia.

### ***Aintzatespena erakunde babesleei***

Donostia, 2018-09-13

Eusko Ikaskuntzak Donostian bildu zituen bere jarduera bultzatzen duten instituzio eta erakunde nagusiak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Gobernua, Espainiako Gobernua, Euskal Herriko Hirigune Elkargoa, foru-aldundiak, udalak, banku-erakunde eta -fundazioak, enpresak eta erakunde publiko eta pribatuak. Beraien laguntza eskertzeaz gain, bertatik bertara jakinarazi zitzaien Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko saio bakoitzaren edukia, eta Eusko Ikaskuntzak ekoitzitako Eusko Ikaskuntza % 100 filma laburraren lehen emanaldia ikusi zuten.



## Mendeurrena



## Mendeurrenaren ospakizun-ekitaldia

Oñati, 2018-11-24

Eusko Ikaskuntzak Oñatin ospatu zuen 1918an sortu zeneko Mendeurrenaren. Orduko harten egin zen bezalaxe, herriko plazan Oier Araolaza koreografoak berariaz sortu zuen dantza ekitaldi horretarako, eta Oñatz Dantza Taldeak lagunduta Soka-Dantza dantzatu zen. Eusko Ikaskuntzako, Oñatiko eta Euskal Herri osoko udaletako ordezkarien parte hartu zuten. Ondoren, ohorezko aurreskua eskaini zitzaien bazkide zaharrenetako bati, M<sup>a</sup> Luisa Azurmendiri, eta bazkide gazteenetako bati, Alvaro Castillori.

Azaroaren 24an egindako ekitaldian hitz egin zuten Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Uxue Barkos Nafarroako Foru Gobernuko lehendakariak, Jean-René Etchegaray Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak eta Mikel Biain Oñatiko alkateak.

Iñaki Dorronsoro Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eta Xabier Alkorta Mendeurrenako eta XVIII. Kongresuko lehendakariak berretsi egin zuten Euskal Herriak etorkizunera begira dituen erronkei erantzuna emateko bokazioari eusten diola Eusko Ikaskuntzak.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, hiru lurralte historikoetako diputatu nagusiak, Gipuzkoako eta Arabako Batzar Nagusietako lehendakariak, Espainiako

Gobernuaren ordezkaria eta ordezkartzia politiko eta instituzional zabala ez ezik, kultura eta gizarte zibileko ordezkari ugari ere bildu ziren ekitaldi historikora, Oñatiko San Miguel parroquia lepo bete arte.

Musika-atalari dagokionez, Joxan Goikoetxeak, Jurdana Otxoak eta Maider Zapiainek J. Goikoetxearen lana interpretatu zuten, Oinkari Taldeko lau dantzari lagunduta, eta Donostiako Orfeoia eta Gontzal Mendibil kantaria ere aritu ziren. Ekitaldi instituzionalaren bukaeran, Arizkungo dantza-taldea aritu zen Foruen Plazan.

## Mendeurrenaren Adierazpena

Oñatiko azaroaren 24ko ekitaldiaren gorenean, Eusko Ikaskuntzaren adierazpen instituzionala irakurri zen: Euskal Herriaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko gogoeta egin eta dagoeneko mende bat bete duen Eusko Ikaskuntzak bidean egin dituen eta aurrerantzean egingo dituen ekarpenak ekarri zituen gogora adierazpenak. Argitxu Etxandy, Ana Urkiza eta Sho Haggio bazkideek irakurri zuten. Hiru lagun horiek aukeratuz, lurralte-, belaunaldi- eta genero-aniztasuna ez ezik, Eusko Ikaskuntzak herritarrei eta beraien ahotsari aitortzen dien garrantzia ere nabarmendu nahi izan ziren.



### Mendeurrenaren liburua

“Eusko Ikaskutzaren 100 urte. Euskaldunon Menda, 1918-2018” liburua kaleratu zuen Eusko Ikaskuntzak mendeurrenaren harira. Liburuak bi zati ditu. Lehenengoak, Juan Aguirre baxkideak idatzi duenak, Eusko Ikaskuntzaren sorrera eta lehen ehun urteetako garapena azaltzen ditu. Bigarrenak, berriz, gaur egungo Euskal Herria itxuratut duten alderdiei buruzko hamaika ikerketa jasotzen ditu, baita Eusko Ikaskuntzak kulturan, zientzian eta arteetan egindako ekarpena ere. Hauek dira egileak: Itziar Alkorta, Gregorio Monreal, Rosa Miren Pagola, Joseba Agirreazkuena, José Ignacio Homobono, Edorta Kortadi, Jon Bagues, Itziar Larrinaga, Jon Kortazar, Juan José Etxeberria eta Arigitxu Camus.



### Eusko Ikaskuntza, agertokian

Eusko Ikaskutzaren XVIII. Kongresuko ekitaldien baitan estreinatu zen Oñatin “Hamaika amaren seme (alaba)” antzezlana, Josemari Velez de Mendizabalek idatzita, Eusko Ikaskuntzaren historia eta, aldi berean, azken mendean euskal gizartea izan duen bilakaera azaltzeko.

Arrasateko Doke Antzerki Taldeak antzeztu zuen lana, Vene Herreroen zuzendaritzapean, Sabin Salaberrik konposatutako musikarekin eta Larraitz Arriolabengoa zuzendaritza instrumentalarekin. Eszenografia Iñigo Arregiren eskutik joan zen.

Guztira zortzi emanaldi eman ziran: Oñatin (2018-11-23/24), Arrasaten (2018-12-02), Aramaion (2018-12-16), Iruñean (2019-01-12), Bilbon (2019-01-26), Donostian (2019-02-02) eta Gasteizen (2019-02-16).



### **Eusko Ikaskuntza, % 100 (film laburra)**

Zazpi minutuako film labur honek, hizkuntza eta formatu berezia erabiliz, erakundea ezagutzera eman eta jendea proiektura erakarraratzeko nahia piztutzea bilatzen du. Eskuek, eta, zehatzago, lanean ari den artista baten eskuek, bideratzen dute filmaren nondik norakoa.

Gidoia eta zuzendaritza Koro Murorena dira, Arantza Cuestarekin batera, eta Txus Aranbururen musika originala dauka. Eusko Ikaskuntzaren jaiotza eragin zuten balioen iraupena eta, aldi berean, gizarte-premietara etengabe egokitzeko gaitasuna erakusten du Eusko Ikaskuntza, % 100 filmak.



### **Eusko Ikaskuntza, 100 urtean. Asmoz ta Jakitez (dokumentala)**

ETBk eta Eusko Ikaskuntzak ekoitzi, Alberto Santanak idatzi eta Josu Venerok zuzendutako "Eusko Ikaskuntza, 100 urte. Asmoz ta Jakitez" dokumentalak Euskal Herriko kultura-erakunderik garrantzitsuenetako baten historia erakusten du.

1918an hasten da, I. Mundu Gerrak suntsitutako Europaren hondakinetan, Euskal Herriko jakintsu handienak Oñatin bildu zirenean, euskal kulturari buruzko ikerketak proiekzio unibertsal batetik partekatzeko asmoz.

Eusko Ikaskuntzak Miguel Primo de Riveraren eta Francisco Francoren diktadurak gaindituz, 1978an berpiztea lortu zuen. Ahantxitako artxibategiak berreskuratu eta bizirik zirauten gerra-aurreko bazkideek belaunaldi berri bati eman zioten lekukoa.

### Jasotako aintzatespenak eta sariak

2018an, hainbat instituziok, entitatek eta kolektibok aintzatetsi dute Eusko Ikaskuntza, ibilbide historikoagatik eta euskal kultura ikertzen, zabaltzen eta sustatzen egindako lanagatik (parentesi artean ageri dira aintzatespena emandako data eta lekua).

#### Aintzatespen instituzionalak


- Arabako Domina (Gasteiz, 2018-04-28)
- Donostiako Urrezko Domina (Donostia, 2018-11-29)
- EHUren Urrezko Domina (Donostia, 2019-01-25)

#### Sariak

- Radio San Sebastianen Bikaintasun Saria (Donostia, 2018-06-21)
- Euskal Kazetaritza Saria (Bilbo, 2018-11-07)
- Orreaga Fundazioaren Nafarroako Pedro Mariskala Saria (Iruñea, 2018-12-03)
- Argiaren Merezimenduzko Saria (Usurbil, 2019-01-25)
- Ibilbideari Elkar Saria (Andoain, 2019-05-09)

#### Beste batzuk

- Armeria Eskolaren “Ondo egindako lana” aintzatespena (Eibar, 2018-06-19)
- ONCEren kupoi berezia, 2018ko azaroaren 24koan, Mendeurrenenaren harira





# BESTE PROIEKTU ETA EKIMEN BATZUK

---

## EuskarAbentura

Uztailaren 1etik 31ra, 16 eta 17 urte bitarteko 110 gaztek, EuskarAbenturaren lehenengo edizioan hartu zuten parte. Egitasmo honen helburuak, euskararen erabilera gazteen artean sustatzea eta partaideen etorkizuneko harreman-sarea bultzatzea dira, gure ingurune naturala eta kulturala ezagutaraziz. Programa honekin Mauletik Getxora arteko oinezko ibilaldia (783 km guztira) burutu zuten.

Proiektuaren talde sustatzaileak Eusko Ikaskuntzaren esku utzi zuen ibilaldia egin nahi zuten hautagai gazteek aurkeztutako lanen ebaluaketa.



## Gazteria eta euskara, bikote dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak

2017an, Eusko Ikaskuntzak unibertsitateetako master ofiziala egiten zuten ikasleei zuzendutako laguntza-burtsa bat deitu zuen, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean martxoan egindako mintegian hartutako konpromisoari erantzunez. Libe Alvarez Iruguuenpagate 24 urteko bilbotarra eta Joseba Fernandez de Landa 29 urteko gasteiztarra izan ziren deialdiaren irabazoleak.

Libe Alvarez Iruguuenpagatek gazteek euskara erabiltzeko motibazioa aztertu zuen. Joseba Fernandez de Landari dagokionez, Twitterreko euskararen erabilerari buruzko ikerketa egin zuen.

Master Amaierako lan hauak 2017-2018ko ikasturtean dagokien unibertsitatean onartuak izan ziren.

## Funtsak

### Artitz, Guggenheim Bilbao museoaren dokumentazio-zentroa

1997az sortu zenez geroztik, Guggenheim Bilbao museoak antolatutako erakusketen harira euskaraz sortzen diren arte-lanak eta -dokumentazioa biltzen du Artitz onlineko zentroak. Plataforma aitzindari hori tresna bizia da eta, etorkizuneko erakusketen materialak txertatu ahala, hazi egingo da.

Eusko Ikaskuntzak euskararen, dokumentazioaren eta teknologiaren alorrean duen esperientzia eta ezagutza ekarri dizkio proiektuari eta, lan sakon horri esker, Bilboko Museoak bildutako arte- eta hizkuntza-ondarea biltzea lortu du Artitzek.

### Gaur Eguneko Historiaren Agiri-Dokumentuen Biltokitik Euskadiko Artxibo Historikora

1980an, Euskal Herriko historia garaikideari buruzko orotariko materialak biltzeko zentroa sortu zuen Eusko Ikaskuntzak. Garai horretan aktiboan ziren iraganeko ikertzaileengan ez ezik, etorkizunean Trantsizio-aldiko garai trinko haiei buruz idatzi beharko zutenengan pentsatuz ere sortu zen Gaur Eguneko Historiaren Agiri-Dokumentuen Bil-tokia, hasieran Hondarribian eta gero Donostian kokatu zena. Liburuak, aldizkariak, egunkariak, liburuxkak, txartelak, panfletoak... historia ikertzeko baliagarria izango zen material oro biltzen zituen.



2018ko apirilaren 12an, Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sinatutako hitzarmenaren bitartez, artxibo horretako bilduma Euskadiko Artxibo Historikoan sartu zen, Euskal Herriko familiek eta instituzioek Eusko Ikaskuntzari emandako hogeita hamar dokumentazio-funsekin batera. Kontsulta errazteko asmoz eman zion Eusko Ikaskuntzak Eusko Jaurlaritzari material hori guztia, 2.000 kutxa inguru.

## Herritarren gunea

### Autogobernu ponentzia

Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko lankidetza-hitzarmenaren esparruan, ekainaren 9an aldibereko herritarren gunea egin zen Bilbon, Gasteizen eta Donostian, Eusko Legebiltzarreko taldeek autogobernu-ponentzian Estatutu berri baterako proposatu dituzten oinarriak partekatu eta kontrastatzeko asmoz.

Foro horretan, erabakitzeko logika horizontala erabiltzeko ahalegin berezia egin zen. Elkarrizketa erraztuko zuen giroa sortzea lehenetsi zen.

Emandako oinarrien inguruan herritarrek egindako ekarpenak eta ideia berriak bildu ziren, eta autogobernu-ponentzian landutako kontzeptuak biltzen zituzten gai-blokeetan adostasun-ildoak jorratu ziren. 2018ko irailaren 26an, lanaren emaitzak biltzen zituen agiria formalki eman zitzaien Eusko Legebiltzarreko autogobernu ponentzia osatzen zuten taldeei beren lanean erabili zezaten.



## Udalak

### - Ikerketak

#### **Antzuola: Alardea**

Lourdes Odriozola bazkideak Antzuolako alardeari buruzko ikerketa historikoa egin zuen, batez ere artxibolanean oinarrituta.

#### **Bergara: 750. urteurrena**

Hiria sortu zeneko 750. urteurrenean, Lourdes Odriozola bazkideak Bergarako historiaren laburpena egin zuen.

#### **Bilbo: euskararen erabilera Bilboko gazteen artean**

Bilboko Udalak aginduta, Eusko Ikaskuntzak Bilboko gazteen euskararen erabilera buruz egin duen azterlanari esker, adin-tarte horretan euskara sustatzeko programak identifikatu ahal izan ziren.

#### **Busturia: 1936-1945**

Eusko Ikaskuntzak eta Udalak emandako bekari esker, Xabier Herrero Acostak “Busturia (1936-1945): Gerra Zibila eta errepresio frankista” izeneko lana egin zuen.

#### **Urduliz: II. Errepublika eta Gerra Zibila**

Koldo Somokuetok idatzi zuen “Urduliz: euskal udalerri baten historia Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean” izeneko ikerketa.

### - Bekak

#### **Biarritz: bekak**

Irailaren 1ean, ikerketan aritzen diren gazteentzako urteko bekak banatu ziren Biarritzeko Médiathèquen.



#### - Jardunaldiak eta hitzaldiak

##### **Baztan: etxebizitza**

Martxoaren 23an, “Baztango etxebizitzen biziberritzea” izeneko jardunaldia egin zen, eskualdeak etxebizitzen alorrean duen arazoaz hitz egin eta irtenbide posibleak agerrazteko.

##### **Biarritz, Bidarrai: euskara, eskolatik plazara**

Hausnarketarako eta trukerako topaguneak egin ziren Biarritzen (2018-09-21) eta Bidarrain (2018-11-14), Biarritzeko Mintzdasai eta Behenafarroako Euskararen Urtaroa programek bultzatuta. Hausnarketaz eta trukeaz harago, proiektuak plan zehatzak prestatzeko asmoa zuten. Eusko Ikaskuntzak mintegietan lortutako informazioa bildu du, gerora txosten bat egiteko.

##### **Bilbo: 1918ko izurritea**

1918ko gripe-pandemiaren mendeurrenean, urriaren 9an egindako Bilboko historiari buruzko XXII. Symposiumak izurrite hori ez ezik, historian gizakiak kolpatu zituzten beste izurrite, gaixotasun eta osasun-razo batzuk ere aztertu zituen.

##### **Ipar Euskal Herria: hitzaldiak, proiekzioak eta jardunaldia**

Eusko Ikaskuntzak 16 hitzaldi antolatu zituen Musée Basque et de l'histoire delakoan, eta beste bat erakundearen beraren Baionako egoitzan. Orobak, lau proiekzio eman zituen Baionako museoan eta beste bi Biarritzeko Médiathèquen. Proiekzio bakoitzaren ondoren mintzaldiak egin ziren.

Era berean, abenduaren 1ean, landa-eremuene garapen ekonomikoari buruzko lan-jardunaldia egin zen Barkoxen.

#### - Dokumentazioa

##### **Zumarraga: udal-artxiboa**

Montserrat Fernández baziak eta artxibo-zainak XVII. mendeko Zumarragari buruzko 1.078 erregistro bildu zituen Oñatin dagoen Gipuzkoako Protokoloen Artxiboaan.

# SARIAK

Asmoz ta Jakitz

100

## Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria 2018

Uztailaren 17an, Donostiako Udalbatzarraren aretoan eman zitzaion Teresa del Valle antropologoari Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa saria.

Iñigo Urkullu lehendakaria, Ana Ollo Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako sailburua, Donostiako alkatea eta LABORAL Kutxako eta Eusko Ikaskuntzako ordezkari gorenak izan ziren ekitaldian.





### 2017ko Manuel Lekuona Saria emateko ekitaldia

2018ko Martxoaren 22an, 2017ko Manuel Lekuona Saria eman zitzaion Fermin Leizaola etnografoari, Donostiako Miramar Jauregian egindako ekitaldian. Ekitaldian, Paco Etxeberria Aranzadi Zientzia Elkarteko lehendakariak, Aitzpea Leizaola sardunaren biografiaren egileak eta Eusko Ikaskuntzaren lehendakariak, Iñaki Dorronsorok hitz egin zuten. Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusia arduratu zen bukaerako mintzaldiaz.



### 2018ko Manuel Lekuona Saria

2018ko Irailaren 18an, sariaren epaimaihain instituzionalak Maria-Jose Azurmendi soziolinguistari eman zion 2018ko Manuel Lekuona saria, euskararekiko konpromisoa eta hizkuntzaren normalizazioaren alde egindako lana aintzatesteko.



### 2018ko Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria Sariak

2018ko abenduaren 2018an, Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria Sarien hiru modalitateak banatu ziren: "Jean-Michel Larrasquet" Ohorezko Saria Kepa Akixo, Zigor, artistarentzat izan zen; Euskal Kulturaren Sariak Virginie Brillant Etchamaite soziologoak jaso zuen *La Perspective transfrontalière de l'emploi dans l'Eurorégion Aquitaine-Euskadi* ikerketagatik; eta Ikus-entzunezko Saria Imanol Eppherre, Eider Ballina Mondragon eta Anne Baskaranek jaso zuten "Mai da Bai (eta ezetik ez dago)" dokumentalagatik.

# ZABALKUNDEA

---



## Urteko Galdera, Solasaldiak

2018ko Urteko Galdera Euskal Herriaren etorkizuna. Zer eta nola? izan zen, eta era guztiak diziplotako 15 adituk erantzun zioten.

2018an, Solasaldiak adituen arteko ikus-entzunezko formatuko elkarrizketen sailean Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko edukieei buruzko gaiak jorratu ziren.



### Euskonews, 1998-2018

